EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
LEHENDAKARITZA
Komunikaziorako Zuzendaritza
PRESIDENCIA
Dirección de Comunicación

# GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Gai nagusiak

# CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Asuntos destacados

**Vitoria-Gasteiz, 2017ko irailak 5**

**Vitoria-Gasteiz, 5 de septiembre de 2017**

Navarra, 2 – 01007 VITORIA-GASTEIZ
Tef. 945 017 972 – e-mail: prentsa@euskadi.eus

**Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak**

## EUSKO JAURLARITZAK 1,4 MILIOI EUROREN LAGUNTZAK ONARTU DITU LEHEN SEKTOREAN BERRIKUNTZA BULTZATZEKO

- **Lehen sektorean eta landa ingurunean ikerketa eta berrikuntza suspertzeko eta sustatzeko exekutibo autonomoak dituen estrategietako bat dira**
- **Helburua da efizientzia areagotzea, lehiakortasuna hobetzea, hazkunde iraunkorrean laguntzea eta sektoreen arteko lankidetza sustatzea**

Euskal Autonomia Erkidegoan, nekazaritzan, basogintzan eta arrantzako eta akuikulturako produktuen sektorean ikerketa, garapena eta berrikuntza bultzatzeko aurten emango diren laguntzak iragartzeko Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuak emandako agindua onartu du Eusko Jaurlaritzak, irailaren bosteko bileran. Laguntza horien zenbatekoa 1.400.000 euro dira.

Nekazaritzan, basogintzan eta arrantzako eta akuikulturako produktuen sektorean ikerketa, garapena eta berrikuntza bultzatzeko exekutibo autonomoa egiten ari denarekin bat etorriz –Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako 2020 Planaren RIS3 Espezializazio Estrategian oinarrituta– laguntza hauen helburua da efizientzia areagotzea, hazkunde iraunkorrean laguntzea eta elkarlana sustatzea Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzan, basogintzan eta arrantzako eta akuikulturako ekoizleen artean.

### Laguntza bideak

Helburu horiek lortzeko, hauek dira aurreikusten diren laguntza bideak:

- Funtsezko ikerketen, industri ikerketen eta garapen esperimentalen proiektuetarako laguntzak: 1.232.000 euro.
- I+G+b-ko proiektuekin zerikusia duten bideragarritasun teknikoko azterlanetarako laguntzak: 28.000 euro.
- Antolaketaren alorrean berrikuntzak egiteko laguntzak: 140.000 euro

### Onuradunak

funtsezko ikerketen, industria ikerketen eta garapen esperimentalen proiektuei eta I+G+Bko proiektuei buruzko bideragarritasun teknikoaren ikerketei zuzendutako laguntzetarako, hauek izan daitezke onuradunak:

- Enpresak, edozein dela ere beren forma juridikoa eta tamaina.
- Elkarteak eta Fundazioak.
- Pertsona fisikoen elkarteak edo nortasun juridikorik gabeko jpertsona juridiko pribatuen elkarteak eta ondasun erkidegoak.
- Zentro teknologikoak.

- Ikerketa eta ezagutzen zabalkunderako erakundeak

Antolaketaren alorreko berrikuntzarako laguntzetarako, hauek izan daitezke onuradunak:

- Enpresak, edozein dela ere beren forma juridikoa eta tamaina.
- Elkarteak eta Fundazioak.
- Pertsona fisikoen elkarteak edo nortasun juridikorik gabeko jpertsona juridiko pribatuen elkarteak eta ondasun erkidegoak.

Eskaerak aurkezteko epea hilabete batekoa izango da, Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Laguntza eskaera egiteko inprimakia web helbide honetan egongo da eskuragai: http://www.euskadi.eus

**Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak**

## MILIOI BAT EURO BAINO GEHIAGO NEKAZARITZAKO ETA BASOGINTZAKO ELKARTEEI LAGUNTZEKO

- **Eusko Jaurlaritzak lankidetza eta elkarlana bultzatuko du berriro ere lehen sektorean**
- **Elkarteak sortzeko laguntzak Euskadiko Landa Garapeneko 2015-2020 Programan sartuta daude**

Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuak nekazaritzako elkartegintzari lotuta eman dituen bi agindu onartu ditu Eusko Jaurlaritzak, azken Kontseilu bileran. Lehen aginduan nekazaritzako eta basogintzako ekoizleen elkarte edo erakundeak, eta haien batasunak edo federazioak, sortzeko Euskadiko Landa Garapeneko 2015-2020 Programak aurreikusten dituen laguntzak iragartzen dira, 2017ko ekitaldirako, 794.000 euro horretara bideratuta. Bigarren aginduan, berriz, fruta eta barazkien ekoizleen erakundeentzako diru laguntzak iragartzen dira. Diru laguntza horiek ere 2017rako dira, eta 314.761 euro bideratuko dira horretara. Guztira, 1.108.761 euro erabiliko dira laguntza horietan.

### Nekazaritzako eta basogintzako elkarteak sortzeko laguntzak

Laguntza horiek finantzatzeko, 600.000 euro erabiliko dira, eta horietatik 480.000 FEADERen kontura izango dira eta gainerako 120.000 euroak, berriz, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura.

Laguntza horiek eskuratu ahal izango dituzte nekazaritza eta basogintzako sektoreetako ekoizleen elkarte edo erakundeek, eta beraien batasunek edo federazioek, 2015etik aurrera eratu eta hala aitortuak izan badira. Horietako bakoitzari gehienez ere 100.000 euro ordaindu ahal izango zaizkio urtean, honela banatuta:

- Beren urteko fakturazioaren %9, lehen urtean.
- Beren urteko fakturazioaren %8, bigarren urtean.
- Beren urteko fakturazioaren %7, hirugarren urtean.

Eskaerak aurkezteko epea hilabete batekoa izango da, Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariari helaraziko zaizkio, eta Eskualdeko Nekazaritza Bulegoetan aurkeztu ahal izango dira –Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako Saila. Donostia-San Senastian kalea, 1. Vitoria-Gasteiz–, edo, bestela, urriaren 1eko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak aurreikusten dituen edozein lekuetan edo formatan.

## Fruta eta barazkien ekoizleen elkarteentzako laguntzak

Era berean, Gobernu Kontseiluak oniritzia eman dio urtarrilaren 26ko 30/2010 Dekretua egokitzeko Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuak emandako aginduari –Dekretu horren bidez fruta eta barazkien sektorerako Europako Erkidegoaren arauak garatzen dira eta Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatu–. Gobernu Kontseiluak, halaber, jakinarazten du fruta eta barazkien ekoizleen elkarteei 314.761 euroren laguntzak emango zaizkiela guztira eta horietatik 190.302 euro FEAGAren konturako laguntzak izango direla eta gainerako125.459 euroak Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorraren kontura.

## Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

### LANDHOME DEIALDIA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGORA ITZULITAKO EUSKAL PROFESIONALAK KONTRATATZEKO ENPRESEI LAGUNTZAK EMATEKOA

Eusko Jaurlaritzak LANdhome programa arautu eta deitzen duten laguntzen agindua onartu du. LANdhome programaren helburua da EAEn ezarritako enpresei diru-laguntzak ematea Euskal Autonomia Erkidegora itzulitako euskal profesionalak kontratatzeko. Programa horretara 200.000 euro zuzendu dira.

LANdhome programa, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila buru duela, enpresak nazioartean hedatzeko planaren baitako ekintzetako bat da, eta helburu du nazioarteko esperientzia baten ondoren Euskal Autonomia Erkidegora itzultzen diren profesionalei bertako enpresetan kalitatezko enplegua bermatzea.

Programaren xedea da EAEko enpresei laguntzea euren antolamendua egokitu dezaten eta kanpoan esperientzia izan duten profesional, zuzendari eta teknikariak itzul daitezen ahalbidetzea.

Programaren bermeak diru-laguntza publikoetan oinarritzen dira eta helburu dute enpresek kontratatu ahal izatea euren nazioarteko ezaguera egiaztatzen duten profesionalak kontratatzea, dagokion lan-kontratuaren indarraldiko lehen urtean soldata gordinaren kostuaren zati bat estalita.

Eskabideak 2017ko urriaren 31ko 12:00ak arte aurkeztu ahal izango dira, izapidetze telematikoaren bidez, honako webgune honetan: http://www.euskadi.eus/nazioartekotzeko-laguntzak-dirulaguntzak/web01-a2lehiar/eu/

Programaren laguntzak jaso ahal izango dituzte Euskal Autonomia Erkidegoan sozietate-izena duten eta bertan gutxienez ezarleku bat duten enpresek, baldin eta indarrean dagoen nazioartekotze-plan bat badute.

## Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza

### 3,3 MILIOI EURO BIDERATUKO DIRA EUSKADIKO UDALERRIETAKO ERAIKIN PUBLIKO ETA KALEETAN IRISGARRITASUNA HOBETUKO DUTEN PLAN ETA JARDUKETETARAKO LAGUNTZETARA

Gobernu Kontseiluak Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza sailburuaren Agindua onartu du gaur, udalentzat eta tokiko erakunde txikientzat eta onura publikoko xede sozialak dituzten erakunde pribatuentzat 2017 ekitaldirako diru-laguntzak deitzeko dena, irisgarritasun-planak prestatzeko edo eguneratzeko eta hiri-ingurunean eta eraikuntzetan irisgarritasuna bermatuko duten hobekuntza-obrak gauzatzeko.

Laguntzen xedea 1997ko Irisgarritasunari buruzko Legea bultzatzea da, eta hauek sustatzeko dira: 1) lehendik dauden hiri-ingurune, espazio publiko, eraikin, garraio eta informazio-sistemak pixkanaka egokitzeko helburua duten irisgarritasun-planak prestatzea eta eguneratzea; 2) udalen eta tokiko erakunde txikien irisgarritasun-planetan aurreikusitako hiri-ingurunean eta eraikuntzetan irisgarritasuna bermatzeko hobekuntza-obrak gauzatzea, eta onura publikoko xede sozialak dituzten erakunde pribatuen kasuan, hobekuntza-obrak gauzatzea, eta 3) egokitze-ekipamendua eskuratzea eta instalatzea, udalen eta tokiko erakunde txikien irisgarritasun-planetan aurreikusitako hiri-ingurunean eta eraikuntzetan irisgarritasuna bermatzeko.

Jarduketa horietara 3,3 milioi euro bideratuko dira guztira. Horietatik, 300.000 euro 2017ko ekitaldi honi dagozkio, 1,8 milioi 2018ari eta 1,2 milioi euro 2019ari. Diru-laguntzen xede diren jarduketak 2017ko urtarriletik aurrera hasi beharko dira, eta horiek gauzatzeko gehieneko epea 2018ko azaroaren 15a da planentzat, eta 2019ko urriaren 31 obrentzat.

Diru-laguntza eskatutako aurrekontuaren % 50ekoa izango da gehienez, irisgarritasun-plan eta horien eguneratzeentzat izan ezik; horientzat, % 75ekoa izango da. Era berean, degradatu gisa deklaratutako edo birgaitze integratuko hiri-inguruen barruan dauden obrek eskatutako aurrekontuaren % 60 izango dute gehienez diruz laguntzeko.

Eskaerak aurkezteko epea bitarteko elektronikoen bidez egin beharko da eta hilabetekoa izango da agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den biharamunetik aurrera. Diru-laguntzei buruzko erabakia epe hori ixten denetik sei hileko epean hartuko da gehienez.

**Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza**

## LAGUNTZAK UDALENTZAT UDALEKO HIRIGINTZA PLANETAN GENERO PERSPEKTIBA GEHITZEKO

Gobernu Kontseiluak, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak proposatuta, hirigintza inklusiboari buruzko laguntza-deialdi bat onartu du, eta haren helburua da udaleko planeamenduan eta hirigintzan genero-perspektiba gehitzea eta, besteak beste, gizon eta emakumeen berdintasuna bermatzea lurraldeko baliabideak eta ekipamenduak eskuratzeko eta espazio publikoetan emakumeen segurtasuna handitzea.

Diru-laguntzak udalei zuzenduta daude eta guztira 200.000 eurokoak dira. Udaleko hirigintza-planetan genero-perspektibaren integrazio eraginkorra sustatu nahi dute, lehentasunezko ekintzako lau arlo tematikotan (hala nola lurraldearen antolamenduan eta hirigintzan, mugikortasun iraunkorrean, landa-ingurunean edo gobernantzan) ekintza estrategikoak garatuz.

Esan behar da pertsonek premia desberdinak dituztela eta modu desberdinean erlazionatzen direla lurraldearekin eta hiri- eta landa-espazioarekin, beren eguneroko bizitzan hartzen dituzten genero-rolak direla bide. Ildo horretan, egiaztatu da genero-desberdintasunak daudela ekipamenduak eta zerbitzuak erabiltzeko premietan zein horiek eskuratzean. Horregatik, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren ustez, hirien diseinuan genero-perspektiba gehitzea funtsezko tresna da gizonei eta emakumeei baliabide guztiak baldintza-berdintasunean eskuratzea bermatzeko.

Jarduketa-esparruetan detektatutako desberdintasunak ikusita, neurri zehatzak hartzeko premia sortu da, besteak beste, espazio publikoan emakumeen segurtasuna hobetzeko, puntu beltzak ezabatuta eta eraikin eta hiri-espazio berriak modu argian diseinatuta; etxeko lana egitea eta pertsonak zaintzea errazteko eta norberaren, familiako eta laneko bizitza bateratzeko, “zaintzaren hirigintza” bat sustatuta; mugikortasun-planetan gizonek eta emakumeek egiten duten garraio publikoaren erabilera desberdina jasotzeko, kontuan hartuta emakumeak direla haren erabiltzaile nagusiak, arrazoi gehiagorengatik egiten dituztela bidaiak, bidaia gehiago kateatzen dituztela eta ibilgailu pribatua eskuratzeko aukera gutxiago dutela. Eta ekipamenduak etxebizitzetara hurbiltzeko ere bai, ekonomia- eta bizitegi-jarduerako erabilera mistoko espazioak diseinatuta eta joan-etorrietako denborak laburtuta, eta emakumeen parte-hartze handiagoa sustatzeko herritarren partaidetza-prozesuetan eta hirigintza-plangintza horiek diseinatzeko eta gauzatzeko taldeetan.

Eskaerak bitarteko elektronikoen bidez tramitatuko dira eta horiek aurkezteko epea hilabetekoa izango da Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den (datorren astelehenerako, irailak 11, aurreikusten da) biharamunetik aurrera. Genero-perspektiba duten dokumentuak prestatzeko behar den laguntza teknikoaren kontratazioren ondorioz sortutako gastuak udaleko gehienez 30.000 euroko zenbatekoraino finantzatuko dira.

## Ogasuna eta Ekonomia

**MIREN ITZIAR AGIRRE BERRIOTXOA, EUSKO JAURLARITZAKO OGASUNEKO SAILBURUORDE BERRIA**

- **Juan Miguel Bilbao Garay ordezkatzen du karguan**

Gobernu Kontseiluak erabaki du Miren Itziar Agirre Berriotxoa izendatzea Ogasuneko sailburuorde berri. Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoko buru izango da, eta bere gain hartuko du Kontzertu Ekonomikoaren, Estatuarekiko Kupoaren eta Lurralde Historikoen Ekarpenen ondoriozko egitekoen eta eskumenen koordinazioa, baita Gernikako Estatutuaren araberako transferentzien mende dauden eskumenen balorazioa ere.

Orain arte, Miren Itziar Agirrek Ogasun eta Ekonomia Saileko Zerga Administrazioko zuzendari kargua bete du. Zuzenbidean lizentziatua da, espezialitate juridiko ekonomikoan, Deustuko Unibertsitatean, eta Enpresa Zuzendaritzako Masterra Gipuzkoako Merkataritza Ganberan eta Mondragon Unibertsitatean. Esperientzia politiko eta profesional handia du arlo ekonomikoan. 16 urte baino gehiago daramatza sektore publikoan zein sektore pribatuan.

24 urte baino gehiago Eusko Jaurlaritzako finantza arduradun izan ondoren utzi du kargua Juan Miguel Bilbaok. Funtsezko pertsona izan da azken hamarkadetako Kontzertu Ekonomikoari buruzko eta Kupoari eta Ekarpenei buruzko legeen negoziazioetan, eta Pedro Azpiazu Ogasun eta Ekonomiako sailburuaren hitzetan "giltzarria izan da aurten Estatuko Gobernuarekin lortutako arrakastan, bere esperientziari eta ezagutzei esker eta Euskadiren interesak babesteko izandako jarreraren ondorioz".

Ogasun eta Ekonomia Sailak eta Eusko Jaurlaritzak zinez eskertzen diote Juan Miguel Bilbaori ibilbide profesionalean egindako lan handia.

**Kultura eta Hizkuntza Politika**

## EUSKO JAURLARITZAK 105.000 EURO BIDERATU DITU KOMIKIGINTZA ETA ILUSTRAZIOAREN ARLOAN SORKUNTZA SUSTATZERA

- **Guztira, zazpi proiektu lagunduko dira, horietako bi 30 urtetik beherako sortzaileenak izango dira**

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak 105.000 euro onartu ditu bere gaurko saioan komikigintza eta ilustrazioa sustatzeko. Lehen aldia da Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak diru-laguntza hauek bultzatzen dituela, eta helburua da Euskadin pisu nabarmena duen arlo honetan diharduten sortzaileen lana laguntzea. Ekimen berri honen nondik norakoak iragan ekainaren 28an aurkeztu ziren, Gasteizko Artium Museoan sektorearekin izandako bilera publiko batean.

Diru-laguntza hauek bi atal dituzte. Batetik, 60.000 euro bideratuko dira komikiak edo eleberri grafikoak egitea helburu duten proiektuetara; bestetik, 45.000 euro bideratuko dira album ilustratuak egitea helburu duten proiektuetara.

Komikigintza laguntzera bideratutako lehen kontu-sail horren bidez, lau proiektu lagunduko dira, bakoitza 15.000 eurokoa; egitasmo horietako bat 30 urtez azpiko marrazkilari batena izango da. Era berean, album ilustratuen proiektuak diruz laguntzea helburu duen deialdiaren bidez hiru proiektu lagunduko dira, bakoitza 15.000 eurokoa, eta horietako bat 30 urtez azpiko gazte bati zuzendua izango da.

Deialdi honek zenbait baldintza ere ezartzen ditu, honen atzean filosofia argi bat dago-eta: laguntza hauen helburua da komikiak, eleberri grafikoak eta album ilustratuak kalean argitaratuta ikustea. Xede hori lortu ahal izateko, marrazkilariei eskatuko zaie gidoia egina izatea, baita argitaletxe baten interesa izatea lana argitaratzeko.

Euskarazko lanei dagokienez, ez da atal bereizirik izango euskarazko komiki, eleberri grafiko edota album ilustratuak laguntzeko, gaur egungo euskarazko komikien osasunak ez baitu eskatzen. Hala ere, euskarazko lanek merkatura ateratzeko zailtasun handiagoak dituzten heinean, lana euskaraz egina izatea puntuazioan baloratuko da.

**Desarrollo Económico e Infraestructuras**

**EL GOBIERNO VASCO APRUEBA AYUDAS POR VALOR DE 1,4 MILLONES DE EUROS PARA PROMOVER LA INNOVACIÓN EN EL SECTOR PRIMARIO**

- **Se enmarcan en la estrategia que viene llevando a cabo el ejecutivo autónomo de cara a estimular e incentivar la investigación y la innovación en el sector primario y el mundo rural**
- **El objetivo es aumentar la eficiencia, mejorar la competitividad, contribuir al crecimiento sostenible y fomentar la cooperación intersectorial**

El Gobierno vasco, en su reunión de consejo del cinco de septiembre, ha aprobado la Orden de la Consejera de Desarrollo Económico e Infraestructuras por la que se convocan para el presente año las ayudas a la investigación, desarrollo e innovación de los sectores agrícola, forestal y de los productos de la pesca y la acuicultura de la Comunidad Autónoma del País Vasco, por un importe total de 1.400.000 euros.

En consonancia con la labor que viene llevando a cabo el ejecutivo autónomo de cara a estimular e incentivar la investigación, desarrollo e innovación en el sector primario y el mundo rural -basada en la Estrategia de Especialización Inteligente RIS3 del ·Plan de Ciencia Tecnología e Innovación 2020 - estas ayudas tienen por finalidad aumentar la eficiencia, mejorar la competitividad, contribuir al crecimiento sostenible y fomentar la cooperación en los sectores agrícola, forestal y de los productores de la pesca y la acuicultura de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

**Líneas de ayuda**

Para alcanzar estos objetivos, las líneas de ayuda contempladas son:

- Ayudas a los proyectos de investigación fundamental, investigación industrial y desarrollo experimental, que contarán con ayudas por valor de 1.232.000 euros
- Ayudas a los estudios de viabilidad técnica relacionados con proyectos de I+D+i, para lo que se ha previsto 28.000 euros
- Ayudas a la innovación en materia de organización, con unas ayudas previstas de 140.000 euros

**Beneficiarios**

Para las ayudas a los proyectos de investigación fundamental, investigación industrial y desarrollo experimental y a los estudios de viabilidad técnica relacionados con proyectos de I+D+i, las personas beneficiarias podrán ser:

- Las empresas, cualquiera que sea su forma jurídica y su tamaño.

- Las Asociaciones y Fundaciones.
- Las agrupaciones de personas físicas o jurídicas privadas sin personalidad jurídica y las comunidades de bienes.
- Centros tecnológicos.
- Organismos de investigación y difusión de conocimientos.

Para las ayudas a la innovación en materia de organización, las personas beneficiarias podrán ser:

- Las empresas, cualquiera que sea su forma jurídica y tamaño,
- Las Asociaciones y Fundaciones.
- Las agrupaciones de personas físicas o jurídicas privadas sin personalidad jurídica y las comunidades de bienes.

El plazo de presentación de las solicitudes será de un mes a contar desde el día siguiente al de la publicación de la orden en el Boletín Oficial del País Vasco. La solicitud de ayuda estará disponible en la dirección web: http://www.euskadi.eus

## Desarrollo Económico e Infraestructuras

# MÁS DE UN MILLÓN DE EUROS EN AYUDAS PARA LAS AGRUPACIONES AGRARIAS Y FORESTALES

- **El Gobierno Vasco apoya así una vez más la cooperación y el trabajo colaborativo en el sector primario**
- **Las ayudas para la creación de agrupaciones están incluidas en el Programa de Desarrollo Rural de Euskadi 2015-2020**

El Gobierno Vasco ha aprobado, en su última reunión del Consejo, sendas órdenes de la Consejera de Desarrollo Económico e Infraestructuras relacionadas con el asociacionismo agrario. En la primera se convocan, para el ejercicio 2017, las ayudas incluidas en el Programa de Desarrollo Rural de Euskadi 2015-2020 para la creación de agrupaciones u organizaciones de productores agrarios y forestales, y sus uniones o federaciones, fin al que se destinan 794.000 euros, mientras que en la segunda se subvencionan con 314.761 euros a las organizaciones de personas productoras de frutas y hortalizas para este mismo año. En conjunto, suma 1.108.761 euros.

## Ayudas para la creación de agrupaciones agrarias y forestales

Para la financiación de estas ayudas se destina la cantidad de 600.000 euros, de los cuales 480.000 correrán con cargo al FEADER, y 120.000 a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Podrán ser beneficiarias de estas ayudas las agrupaciones u organizaciones de productores del sector agrario y forestal, y sus uniones o federaciones, que se hayan constituido y hayan sido reconocidas como tales a partir de 2015 y la cuantía máxima anual a pagar a cada una de ellas no podrá superar los 100.000 euros, que se repartirán de la siguiente forma:

- el 9% de su facturación anual, el primer año.

- el 8% de su facturación anual, el segundo año.

- el 7% de su facturación anual, el tercer año.

Las solicitudes se presentarán en el plazo máximo de un mes a contar desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco. Estarán dirigidas a la Directora de Agricultura y Ganadería y se presentarán, bien en las dependencias del Departamento de Desarrollo Económico e Infraestructuras, sitas en la calle Donostia-San Sebastián nº 1 de Vitoria-Gasteiz, o bien en cualquiera de los lugares y forma previstos en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Publicas.

## Ayudas para organizaciones de productores de frutas y hortalizas

Asimismo, el Consejo del Gobierno ha dado el visto bueno a la orden de la Consejera de Desarrollo Económico e Infraestructuras por la que se adapta el Decreto 30/2010, de 26 de enero (por el que se regula el desarrollo y aplicación en la Comunidad Autónoma de País Vasco de la reglamentación comunitaria en el sector de las frutas y hortalizas) y se da a conocer el volumen total de ayudas a conceder a las organizaciones de personas productoras de frutas y hortalizas para al año 2017, quedando fijadas estas en la cantidad de 314.761 de los que 190.302 corresponden a ayudas con cargo al FEAGA y 125.459 serán con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

## Desarrollo Económico e Infraestructuras

# CONVOCATORIA LANDHOME DE AYUDAS A EMPRESAS PARA LA CONTRATACIÓN DE PROFESIONALES VASCOS RETORNADOS A EUSKADI

El Gobierno Vasco ha aprobado la orden ayudas que regula y convoca el programa LANdhome, destinado a la concesión de subvenciones a empresas radicadas en la CAE, para la contratación de profesionales vascos retornados a Euskadi. A este programa se destinan 200.000 euros.

El Programa LANdhome, liderado por el Departamento de Desarrollo Económico e Infraestructuras, es una de las acciones enmarcadas dentro del Plan de Internacionalización empresarial de actuación destinado a garantizar un empleo de calidad en empresas vascas, a profesionales que retornan a Euskadi tras una experiencia internacional.

El objeto del programa es ayudar a que empresas de la CAE adapten sus organizaciones y posibiliten el retorno de profesionales, directivos y técnicos experimentados en el exterior.

Los apoyos del programa se instrumentan en subvenciones públicas y van dirigidos a que las empresas puedan contratar a profesionales que acrediten su bagaje internacional cubriendo una parte del coste salarial bruto del primer año de vigencia del correspondiente contrato laboral.

Las solicitudes podrán presentarse hasta las 12:00 horas del 31 de octubre de 2017 mediante tramitación telemática, a través de la siguiente web: http://www.euskadi.eus/ayudas-subvenciones-internacionalizacion/web01-a2lehiar/es/

Podrán acceder a las ayudas de este programa las empresas con razón social y al menos un establecimiento en la Comunidad Autónoma del País Vasco, y que cuenten con un plan de internacionalización vigente.

## Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda

# SE DESTINAN 3,3 MILLONES DE EUROS A AYUDAS PARA PLANES Y ACTUACIONES QUE MEJOREN LA ACCESIBILIDAD EN EDIFICIOS PÚBLICOS Y CALLES DE LOS MUNICIPIOS DE EUSKADI

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy la Orden del consejero de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda por la que se convocan para el ejercicio 2017 las subvenciones a ayuntamientos y entidades locales menores, y entidades privadas con fines sociales de utilidad pública, para la elaboración o actualización de planes de accesibilidad y para la ejecución de obras de mejora que garanticen la accesibilidad en el entorno urbano y de las edificaciones.

El objeto de las ayudas es dar un impulso a la Ley de Accesibilidad de 1997 y se dirigen a promover: 1) la elaboración y actualización de planes de accesibilidad que tengan por objeto la adaptación progresiva de los entornos urbanos, espacios públicos, edificios, transportes y sistemas de información ya existentes; 2) la ejecución de obras de mejora para garantizar la accesibilidad en el entorno urbano y las edificaciones previstas en los planes de accesibilidad de los ayuntamientos y entidades locales menores, y en el caso de entidades privadas con fines sociales de utilidad pública, la ejecución de obras de mejora; y 3) la adquisición e instalación de equipamiento de adaptación para garantizar la accesibilidad en el entorno urbano y las edificaciones contenidos en los planes de accesibilidad de los ayuntamientos y entidades locales menores.

A estas actuaciones se destinará un total de 3,3 millones de euros, de los cuales 300.000 euros corresponden a este ejercicio de 2017, 1,8 millones a 2018 y 1,2 millones de euros al año 2019. Las actuaciones objeto de subvención deberán iniciarse a partir de enero del año 2017, siendo el plazo máximo para su materialización el 15 de noviembre de 2018 para los planes, y el 31 de octubre de 2019 para las obras.

La subvención supondrá como máximo el 50% del presupuesto solicitado, excepto para los planes de accesibilidad y sus actualizaciones, que será del 75%. Así mismo, las obras que se ubiquen en dentro de áreas urbanas declaradas como degradadas o de rehabilitación integrada tendrán un máximo subvencionable del 60% del presupuesto solicitado.

El plazo para la presentación de las solicitudes, que deberá hacerse por medios electrónicos, será de un mes desde el día siguiente a la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco. La resolución sobre las subvenciones se adoptará en el plazo máximo de seis meses desde que se cierre dicho plazo.

**Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda**

## AYUDAS A LOS AYUNTAMIENTOS PARA LA INCORPORACIÓN DE LA PERSPECTIVA DE GÉNERO EN LOS PLANES URBANÍSTICOS MUNICIPALES

El Consejo de Gobierno ha aprobado, a propuesta del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda, una convocatoria de ayudas sobre urbanismo inclusivo cuyo objetivo es incorporar la perspectiva de género en el planeamiento y urbanismo municipales y garantizar, entre otras cuestiones, la igualdad de acceso de hombres y mujeres a los distintos recursos y equipamientos del territorio y el incremento de la seguridad de las mujeres en los espacios públicos.

Las subvenciones, dirigidas a los ayuntamientos, están dotadas con un total de 200.000 euros y pretenden incentivar la integración efectiva de la perspectiva de género en los planes urbanísticos municipales, a través de diferentes acciones estratégicas en cuatro áreas temáticas de acción prioritaria, como la ordenación del territorio y el urbanismo, la movilidad sostenible, el medio rural o la gobernanza.

Hay que señalar que las personas tienen distintas necesidades y se relacionan de forma diferente con el territorio y el espacio urbano y rural, debido a los roles de género que asumen en su vida cotidiana. En este sentido, se ha constatado que existen diferencias de género tanto en las necesidades de uso de equipamientos y servicios como en el acceso a los mismos. Por ello, el Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda considera la inclusión de la perspectiva de género en el diseño de las ciudades una herramienta fundamental para poder garantizar a hombres y mujeres el acceso a todos los recursos en igualdad de condiciones.

De la observación de las desigualdades detectadas en los diferentes ámbitos de actuación se deriva la necesidad de adoptar medidas concretas que contribuyan, entre otras cuestiones, a mejorar la seguridad de las mujeres en el espacio público, eliminando los puntos negros y diseñando los nuevos edificios y espacios urbanos de forma diáfana y segura; a facilitar la realización del trabajo doméstico y de cuidado de las personas y la conciliación de la vida personal, familiar y laboral, promoviendo un “urbanismo del cuidado”; a recoger en los planes de movilidad el diferente uso del transporte público que hacen hombres y mujeres, teniendo en cuenta que las mujeres son las principales usuarias del mismo, realizan viajes por más motivos, encadenan más viajes y tienen menor acceso al vehículo privado. Y también a posibilitar el acercamiento de los equipamientos a las viviendas, diseñando espacios de usos mixtos de actividad económica y residencial y acortando los tiempos de desplazamiento, así como a fomentar una mayor participación de las mujeres en los procesos de participación ciudadana y en los equipos técnicos de diseño y ejecución de dichos planeamientos urbanísticos.

Las solicitudes se tramitarán por medios electrónicos y el plazo para la

presentación de las mismas será de un mes a contar desde el día siguiente a la publicación de la Orden en el Boletín Oficial del País Vasco, previsto para el próximo lunes, 11 de septiembre. Se financiarán los gastos derivados de la contratación de la asistencia técnica necesaria para la elaboración de documentos con perspectiva de género hasta un importe máximo de 30.000 € por Ayuntamiento.

## Hacienda y Economía

**MIREN ITZIAR AGIRRE BERRIOTXOA, NUEVA VICECONSEJERA DE HACIENDA DEL GOBIERNO VASCO**

- **Sustituye a Juan Miguel Bilbao Garay en el cargo**

El Consejo de Gobierno ha acordado el nombramiento de Miren Itziar Agirre Berriotxoa como nueva Viceconsejera de Hacienda. Presidirá el Órgano de Coordinación Tributaria de Euskadi y asumirá las tareas de coordinación de las competencias y funciones que se derivan del Concierto Económico, Cupo al Estado y Aportaciones de los Territorios Históricos, así como de lo referido a la valoración de las competencias objeto de transferencias de acuerdo al Estatuto de Gernika.

Hasta el momento Miren Itziar Agirre ha desempeñado el cargo de Directora de Administración Tributaria del Departamento de Hacienda y Economía. Es Licenciada en Derecho en la especialidad jurídico económica por la Universidad de Deusto y MBA en la Cámara de Comercio de Gipuzkoa y Mondragon Unibertsitatea. Cuenta con una dilatada experiencia política y profesional, ligada al ámbito económico, de más de 16 años tanto en el sector público como en el sector privado.

Juan Miguel Bilbao deja el cargo tras ser responsable de Finanzas del Gobierno Vasco durante más de 24 años. Ha sido una persona fundamental en las negociaciones de las Leyes del Concierto Económico y Cupo y Aportaciones de las últimas décadas, y en palabras del Consejero de Hacienda y Economía Pedro Azpiazu “una persona clave en el éxito conseguido este año con el Gobierno del Estado, debido a su experiencia, a sus conocimientos y a su postura a la hora de defender los intereses de Euskadi”.

El Departamento de Hacienda y Economía y el Gobierno Vasco agradecen a Juan Miguel Bilbao la gran labor realizada durante toda su carrera profesional.

## Cultura y Política Lingüística

# EL GOBIERNO VASCO DESTINA 105.000 EUROS A IMPULSAR LA PRODUCCIÓN EN EL MUNDO DEL CÓMIC Y LA ILUSTRACIÓN

- **Un total de siete proyectos podrán recibirán alguna de las ayudas; dos de ellos deberán estar liderados por menores de 30 años**

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su sesión de hoy una partida de 105.000 euros destinada a impulsar la producción en el mundo del cómic y la ilustración. Se trata de la primera convocatoria que el Departamento de Cultura y Política Lingüística impulsa específicamente para este ámbito y el objetivo es ayudar la labor de las y los creadores que trabajan en un ámbito con mucho peso en Euskadi. Los pormenores de esta iniciativa se dieron a conocer en una reunión pública con el sector celebrada, el pasado 28 de junio, en el Museo Artium de Vitoria-Gasteiz.

Esta convocatoria cuenta con dos apartados. En primer lugar, se destinarán un total de 60.000 euros a proyectos orientados a la elaboración de cómics y novelas gráficas. Además, se destinarán otros 45.000 euros a proyectos cuya finalidad sea la elaboración de álbumes ilustrados.

El primer apartado permitirá impulsar la elaboración de cuatro proyectos vinculados al mundo del cómic y la novela gráfica a través de cuatro ayudas, de 15.000 euros cada una; uno de los proyectos deberá estar liderado por un artista gráfico menor de 30 años. En segundo lugar, la convocatoria de ayudas dirigidas a apoyar económicamente los proyectos de álbumes ilustrados patrocinará tres proyectos a través de tres ayudas, de 15.000 euros cada una. También en este caso, una de las ayudas deberá ir destinada a un joven menor de 30 años.

La convocatoria establece, asimismo, unos requisitos que tienen que ver con la filosofía sobre la que se asienta esta convocatoria: las obras que reciban estas ayudas deberán llegar a ser publicadas. Con el fin de alcanzar este objetivo, se requerirá a los dibujantes la presentación del guión finalizado, así como el interés de una editorial por publicar la obra.

Las obras en euskera no serán tratadas en un capítulo diferenciado, puesto que la salud del cómic, las novelas gráficas y los álbumes ilustrados en euskera no lo requiere así actualmente. No obstante, en la medida en que las obras en esta lengua encuentran una mayor dificultad en su acceso al mercado, la puntuación valorará el hecho de estar elaboradas en euskera.